

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZARATAMOKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zaratamoko Udalaren 2006ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokora bertaratu diren kideek.

Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean Epaitegiak adierazi du Udalak administrazioko kontratazioaren alorrean udal-jarduera arautzen duen lege arautegia urratu duela. Gainerako alorrei dagokienez, indarreko arautegia zuzentasunez bete duela adierazi du.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak adierazi du hainbat kasutan urratu egin dela Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua; hona hemen adierazgarrienak: 809.805 euroko 14 kontratutan urratu egin dira publizitate eta lehia printzipioak; 561.205 euroan esleitutako beste bi kontratutan, administrazioko klausulen pleguek ez dute enpresariaren sailkapen egoera aitortzeko betekizuna eskatzen eta zerbitzu kontratu batean eta obretako beste batean, hurrenez hurren, jatorrizko aurrekontuak % 152 eta % 86 aldatu dira, dagozkion aldaketak batere bideratu gabe; honek aipatutako Testu Bateratuan jasotako lehiaketa printzipioak urratzen ditu, kontutan hartu behar baita kontratuak aldatzeko gaitasuna beti ere zuhurtziazko muga baten barruan gauzatu behar dela.

Aurrekontuaren atalean Erakunde Fiskalizatzaileak adierazi du hainbat legezko arau urratu direla, izan ere 2005 eta 2006ko ekitaldietan aurrekontu-luzapenaren erregimenarekin aritu baitira, Osokoari dagozkion aurrekontuak onesteko aurkeztu ez izateagatik. Berebat, Osokoak onetsi gabe 1.028.639 euro egin duten kreditu osagarriak erregistratu dira, hasierako aurrekontuaren % 67a, eta azkenik, 2006ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra ere ez du Udalbatzak onetsi.

Urteko kontuei dagokienez, lanaren zabalaren eta azaleratutako zalantza egoeren mugaketek duten garrantzia dela eta, HKEEk ez dezake horien gaineko iritzirik plazaratu.

Honela, bada, ez dute eman 2006ko abenduaren 31n ebazteko dauden erreklamazio, epai edo auzi guztiei buruzko informazioa, zeinetarik obligazio edo pasibo kontingenteak erator litezkeen.

Bestalde, ez dakigu zein den Udalak gauzatutako hainbat jardueraren aurka abiarazitako hainbat egintzaren azkena; horientzat ez da inongo gastu edo zuzkidurarik erregistratu; hona hemen zein diren: Eusko Jaurlaritzak egindako 346.353 euroko erreklamazioak; exekutatzeko dagoen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren epaia, obra lizentzia bat baliogabe uzten duena eta lanak geldiarazteko eta dagokion zigor-espedientea abiarazteko agintzen duena; esleipendun batek Udalak berekin zuen kontratua eten izanaren aurka jarritako demandaren ondorioa eta kalte eta galeren erreklamazioa; eta azkenik, Udalak 1998ko urteaz geroztik ez ditu likidatu, ez kontularitzan erregistratu, Lursailen Balioaren Igoeraren gaineko Zergari dagozkion espedienteak eta ez du likidatzeko dauden espedienteen erregistrorik.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, sarrera, langileria eta kontratazio arloetan.

Amaitzeko, eta egoera finantzarioari dagokionez esan behar da HKEEk adierazitako hutsen materialtasuna eta hainbat erreklamazio, epai edo auzi abian direla aintzat hartuta, nekeza dela Udalaren finantza gaitasuna neurtzea eta honenbestez, etorkizuneko gastu gaitasuna prozesu horien ebazpenari meneratua egongo dela.